



**Arartekoaren 2021S-1378-21 Ebazpena, 2021eko irailaren 9koa. Horren bidez, Leioako Udalari iradokitzen zaio igerilekuetara sartzeko prozedura bat antola dezala, bai abonatuentzat bai erabiltzaileentzat, denen osasuna bermatuz instalazio horietan inguru segurua eskaintzeko eta, era berean, instalazio horien erabilera arautzen duen erregelamendua bete ahal izateko.**

### Aurrekariak

1. Arartekoak (...)k egin duen kexa bat jaso du erakunde honetan. Kexa-idazki horretan adierazten du ez dagoela ados Leioako Udalak Udalaren kirol instalazioetako abonatu ez den inori udako udal igerilekuetara sartzen ez uzteko hartutako erabakiarekin (zehazki, Torresoloko igerilekuetara sartzen ez uzteko erabakiarekin).

Kexagileak adierazi duenez, bigarren urtez jarraian Leioako bizilagunek ez dute instalazio horretara sartzeko aukerarik (abonatuak alde aurretik hitzordua eskatuta sartzen dira instalazio horretara), ezta lekua izanda ere. Adierazi du ez duela abonurik eskuratu nahi, kostua gehiegizkoa delako eman diezaiokeen erabilerrarako.

Gaineratu duenez, egoera hori konpontze aldera, iaz erreklamazio bat aurkeztu zuen Leioako Udalean; jakinarazi zitzaion abonatuak soilik sar daitezkeela igerilekuetara, ezin baitzuten diskriminatu erroldatuak eta erroldatu gabeak izateagatik.

Halaber, Leioako Udalak erabaki horri aurrean ere eutsi egiten diola adierazi du kexagileak.

2. Kexaren planteamendua aztertu ondorik, eta kontuan hartuta deskribatu den jarduketak agian ez dituela behar adina errespetatzen Leioako Udalak Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko Erregelamenduan aintzatesten diren eskubideak, Arartekoak Leioako Udalari laguntza eskatu zion. Horretarako, aurretiko ohar batzuk bidali zizkion (horiei buruz arituko gara ebazpen honen oinarri juridikoan, errepikakorrak ez izateko), Udalari planteatutako kexaren berri eman ondoren. Ildo horri jarraikiz, egindako gogoeten berri eman zitzaion Udalari, bai eta neurri hori aplikatu beharreko araudira eta hura hartzeko prozedurara egokitzen ote zen ere.

- 3-. Leioako Udalak honako hau jakinarazi du eskabideari erantzunez:

*“Debido a la situación sanitaria existente nos hemos visto en la obligación de mantener una serie de normas y controles con el objetivo del correcto funcionamiento de la instalación, además de resguardar la salud de todas nuestras y nuestros usuarios. Por ello extraemos puntos a tener en cuenta del plan de contingencia del Gobierno vasco sobre la COVID-19.*

*1.-Las recomendaciones sanitarias pautadas por el Gobierno Vaco para la apertura y mantenimiento de instalaciones de piscina y áreas recreativas de agua de la CAPV, especifican*



*que, tras decaer el 9 de mayo de 2021 el estado de alarma declarado mediante Real Decreto 956/2020, de 3 de mayo, se aprueba el Decreto 23/2021, de 7 de mayo, del lehendakari, sobre medidas de prevención para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2” (Decreto 23/2021), posteriormente modificado por el Decreto 30/2021, de 18 de junio, del lehendakari.*

*Como se establece en su preámbulo, en el mismo se contemplan medidas de diversa naturaleza para hacer frente a la expansión del virus causante de la COVID-19, con una previsible utilidad, acreditada por la recurrencia a las mismas de manera sistemática por los países de nuestro entorno, y de conformidad con lo señalado por la OMS y otros organismos internacionales.*

## **2-. TRANSMISIÓN DE LA SARS-CoV-2.**

*Las conclusiones e informe sobre transmisión del SARS-CoV-2 en playas y piscinas del Consejo Superior de Investigaciones Científicas (CSIC, 2020), en lo relativo a piscinas indican que:*

*\*La principal vía de transmisión del SARS-CoV-2 en playas, ríos, lagos y piscinas es a través de secreciones respiratorias que se generan con la tos y los estornudos y el contacto de persona a persona, por lo que deben mantenerse las recomendaciones generales relativas a cualquier otro lugar.*

*\*En actividades recreativas, la infección por SARS-CoV-2 por contacto con el agua de condiciones estándar para el baño, es muy poco probable. Sin embargo, estas actividades generalmente implican una pérdida de las medidas recomendadas de distanciamiento social.*

*\*En piscinas, en dónde el uso de agentes desinfectantes está ampliamente implantado con el fin de evitar la contaminación microbiana de las aguas por la afluencia de personas usuarias, la concentración residual del agente de desinfección presente en el agua debería ser suficiente para la inactivación del virus.*

*\*En aquellos caos en los que el ambiente de las instalaciones se mantiene a temperaturas elevadas, como en el caso de las saunas y los baños de vapor, se espera que, debido a la alta temperatura (> 60°C), la supervivencia del virus sea reducida.*

*Actualmente existen nuevas evidencias científicas consistentes que indican que la transmisión del virus SARS-CoV-2 por aerosoles debe considerarse una vía de transmisión adicional a las ya reconocidas con anterioridad (contacto con secreciones respiratorias, fómites) (Gobierno Vasco, 2020). Estos aerosoles podrían tanto impactar y depositarse en las conjuntivas y la mucosa del tracto respiratorio superior como ser inhalados, llegando a cualquier tramo del tracto respiratorio.*

*El riesgo de esta transmisión aumenta en la distancia corta, en entornos cerrados y concurridos, especialmente mal ventilados, y si se realizan actividades que aumenten la generación de aerosoles tales como hacer ejercicio físico, hablar alto, gritar o cantar. El riesgo de transmisión en interiores es claramente superior frente a exteriores.*

*Por lo tanto, teniendo en cuenta que la principal vía de transmisión del SARS-CoV-2 es a través de secreciones respiratorias, aerosoles y el contacto cercano de persona a persona, los riesgos asociados a la COVID-19 en piscinas y áreas recreativas de agua están relacionados fundamentalmente con una pérdida de las medidas de distanciamiento interpersonal recomendadas y con el contacto con los objetos de uso común que pueden servir de mecanismo de transferencia. Las medidas necesarias para evitar la transmisión del virus son, además del adecuado tratamiento y control del agua, la distancia interpersonal, el uso adecuado de la mascarilla, el refuerzo de la higiene de manos y la limpieza e higienización de la instalación. Toda la ciudadanía deberá adoptar las medidas necesarias para evitar la generación de riesgos de propagación de la enfermedad COVID-19, así como la propia exposición a dichos riesgos. Este deber de cautela y protección será igualmente exigible a los titulares de cualquier actividad. Es importante la concienciación colectiva y la responsabilidad individual.*



### 3-. .OBJETO.

*\*Establecer el procedimiento para la apertura/reapertura de las piscinas y áreas recreativas de agua. Estas últimas se definen como aquellos elementos constructivos sin vaso y con recirculación y sistema de tratamiento del agua que tienen por objeto un uso lúdico donde el agua entra en contacto con la persona usuaria. Podrán ser de uso público o privado y constar de uno o más Conjuntos de Juegos de Agua (agrupación de cubos, setas, flores, arcos.., con un circuito de agua único e independiente de otro circuito.)*

*\*Establecer las pautas para la elaboración y actualización de los planes de contingencia COVID-19 que minimicen el riesgo de transmisión del SARS-CoV-2 en las piscinas y áreas recreativas de agua.*

#### **-PAUTAS PARA LA ELABORACIÓN DEL PLAN DE CONTINGENCIA COVID-19.**

*\*El Plan de Contingencia COVID-19 deberá detallar la aplicación de los contenidos sanitarios que figuras en este documento a las circunstancias concretas de cada instalación. Tendrá una exhaustividad acorde al tamaño y características de la instalación, siempre con el objetivo de minimizar el riesgo de transmisión del SARS-CoV-2.*

*Este plan formará parte de su Programa de Autocontrol, integrándose con el mismo y abordando de forma clara y expresa, al igual que en el resto de los planes, el qué, el cómo, el cuándo y el quien, recordando que el objeto del mismo es reforzar la seguridad de las personas usuarias mediante el mantenimiento de las distancias de seguridad de las personas usuarias mediante el mantenimiento de las distancias de seguridad y extremando las medidas de higiene en la instalación, sin olvidar el cumplimiento del resto de planes ya implantados.*

*El titular de la instalación deberá asegurar que el personal conoce el plan, y muy particularmente, los responsables de la implantación, vigilancia y control de las nuevas medidas.*

*Todas las operaciones que se lleven a cabo deberán quedar anotadas y descritas en los registros correspondientes.*

*El Plan de Contingencia COVID-19 contendrá como mínimo los siguientes apartados:*

#### **A-.Acceso a las instalaciones.**

*B-.Medidas para mantener el distanciamiento interpersonal (Control de aforos y distancias de seguridad)*

*C-.Información a las personas usuarias.*

*D-.Limpieza y desinfección de espacios comunes.*

*E-.Control de la calidad del agua.*

#### **A-.Acceso a las instalaciones.**

*-.Se priorizará la cita previa con reventa on line y el pago telemático u otras medidas que eviten, en la medida de lo posible el contacto con monedas y billetes.*

*-.Se procurará que los accesos no precisen contacto físico utilizando dispositivos de aproximación de pulseras, tarjetas, lectores de códigos QR. En el caso de que la barrera de acceso sean tornos y sea necesario tocarlos con las manos/piernas, es preferible tenerlos bajados.*

*-.Se pondrá a disposición de las personas usuarias sistemas para la desinfección de manos como dosificadores de hidrogel desinfectante, a poder ser con dosificador automático en la entrada/salida de la instalación y otros espacios del interior del edificio.*





*\*Por todo esto y teniendo en cuenta las **recomendaciones** emitidas por el Gobierno Vasco que se acaban de explicar en estos párrafos anteriores se han tomado entre otras, **estas medidas principalmente**:*

*-.Limitación aforo a 400 personas. Hemos preferido ser garantistas y establecer el límite en menos del 50% del límite de aforo.*

*-.Limitación de acceso a las instalaciones con cita previa a personas abonadas a IDM o temporada verano (esto último a un precio bastante reducido si la persona es empadronada en Leioa)*

*Esto nos da mayor control de la situación en caso de un posible contagio, ofreciéndonos una mayor capacidad para intervenir en caso necesario."*

Kexaren planteamendua eta udalak bidalitako informazioa aztertu ondorik, Arartekoak egokitzen du honako gogoeta hauek egitea:

### Gogoetak

1. Kexaren xedea honako hau da: Leioako Udalak hartutako erabakia, hau da, erabiltzaileei edo abonatu ez direnei udako igerilekuetara sartzen ez uztea Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko araudira egokitzea.

Leioako Udalak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen (TAOAL) 25. eta 26. artikuluek eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 16. eta 17.1.9 artikuluek aintzatesten dituzten eskumenen itzalpean, eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak ezarritako esparruan, **Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko erregelamendua** onetsi zuen.

Erregelamendu horren I. kapituluak "**Abonatuak eta Erabiltzaileak**" arautzen ditu.

Horrela, kapitulu horren 1. artikuluan ezartzen denez, udalaren kirol instalazioen erabilera **abonatu** edo **erabiltzaile** gisa egin daiteke.

8. artikulua, berriz, ezartzen du udalaren kirol instalazioen erabiltzaile izango direla, abonatu izan gabe, ezaririk dagoen tasa ordaindu ondoren instalazioetara sartzen diren pertsonak.

Ondore horietarako, udalaren kirol instalazioak erabiltzeagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalak 2021erako tarifak arautzen ditu, abonatuentzako tarifak eta **banakako** tarifak edo **abonatu gabekoentzako** tarifak bereiziz (kanpoko igerilekuak).

Laburbilduz, udal araudiak **udalaren kirol instalazioak erabiltzeko eskubidea aintzatesten du, abonatu gisa edo erabiltzaile gisa (abonatu gabea).**



2. Kirol instalazioen erabilera arautzen duen araudian (Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko erregelamendua) ezarritako zehaztapenak nahitaez bete behar dituzte bai administrazioak eta bai erabiltzaileek ere.

Hala ere, goragoko mailako arauak eragin diete zehaztapen horiei, haiekiko lehenespenarekin; xedapen horiek SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak arautzen dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, nahitaez aipatu behar dira honako lege-xedapen hauek:

- 2/2021 Legea, ekainaren 24koa, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzkoa. Lege horrek hainbat neurri ezartzen ditu, osasun-alertaren maila desberdinen arabera hartu beharrekoak.
- 23/2021 Dekretua, maiatzaren 7koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzkoa, Eta hura aldatzeko ondorengo dekretuak.

2/2021 Legeari dagokionez, 21.1 artikulua honako hau ezartzen du: *“Oro har, ezartzen diren berariazko arau edo protokoloak kalterik egin gabe, higie- eta prebentzio-neurri hauek aplikatuko zaizkie establezimendu, negozio-lokal, erabilera publikoko instalazio eta espazio eta jarduera publiko guztiei:*

- a) *Jarduera ekonomiko baten titular orok, edo, hala badagokio, zuzendariak edo zentroetako, instalazioetako, erabilera publikoko guneetako eta erakundeetako arduradunak **ziurtatu beharko du** establezimendu, lokal, instalazio edo espazioen ezaugarriak eta erabilera-intentsitateari egokitutako **garbiketa- eta desinfekzio-neurriak** hartzen direla. Hala badagokio, txartelaz edo gailuen arteko kontaktu fisikorik ez dakarten bestelako bitartekoen bidez ordaintzea sustatuko da, bai eta horretarako behar diren ekipoen garbitzea eta desinfektatzea ere...*

Beste alde batetik, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriei buruzko lehendakariaren maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretuaren 2. xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

*“Igerilekuak:*

*Aire zabaleko edo estalitako igerilekuek, kirol- edo jolas-erabilerarako direnean, edukieraren **ehuneko 50eko muga** errespetatu beharko dute, bai sarbideari dagokionez, bai kirol- edo jolas-jardueretan.*

*Igerilekuak erabiltzean, **segurtasun- eta babes-neurri egokiei eutsi beharko zaie, batez ere erabiltzaileen arteko segurtasun-distantziari.***

*Igerilekuetako egonleketan, banaketa espaziala ezarriko da, **elkarrekin bizi ez diren erabiltzaileen** artean pertsonen arteko segurtasun-distantzia lortzeko, lurzoruko seinaleen edo antzeko marken bidez.”*

Arestian aipatu diren araudiek ez dute inolako mugarik ezartzen instalazioen **erabiltzaileei** dagokienez; hortaz, Leioako Udalak ezarri duen mugak ezin du funtsik izan araudi horietan.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren EAEko igerilekuen eta uraren jolas-guneen instalazioak irekitzeko / berriz irekitzeko eta mantentzeko osasun-gomendioek (COVID-19 kontingentzia-plana, 2021eko uztailaren 29koa) ere zenbait jarraibide eta gomendio ezartzen dituzte, baina horietan ez da mugarik ezartzen sarbide motaren arabera.

Gomendio horiek ezartzen dute, halaber, instalazio mota horiek COVID-19 Kontingentzia Plana egin eta/edo eguneratu behar dutela. Autokontrol-programan txertatuko da plan hori, eta bertan jasoko dira **araudian jasotzen diren jarduera-murrizketak**, bai eta **erabiltzaileen kutsatze-arriskuak minimizatzeko prebentzio-neurriak** ere.

3. Horrenbestez, COVID-19 Kontingentzia Plan horretan **araudian jasotzen diren jarduera-murrizketak** bilduko dira, **bai eta erabiltzaileen kutsatze-arriskuak minimizatzeko prebentzio-neurrien** ezarpena ere.

Leioako Udalaren Kirol Instalazioen Kontingentzia Planak honako hau ezartzen du:

*Leioako Kirol Instalazioen Kontingentzia Plana*

*Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren gomendioak*

**A-. Instalazioetarako sarbidea.**

**A-. Instalazioetarako sarbidea.**

*- On line birsalmentarako aurretiko hitzordua eta ordainketa telematikoa lehenetsiko dira, edo, ahal den neurrian, txanpon eta billeteekin kontakturik ez izateko beste neurri batzuk.*

*- On line birsalmentarako aurretiko hitzordua eta ordainketa telematikoa lehenetsiko dira, edo, ahal den neurrian, txanpon eta billeteekin kontakturik ez izateko beste neurri batzuk.*

*- Sarbideek kontaktu fisikorik behar ez izateko ahalegina egingo da, eskumuturrekoak, txartelak eta QR kodeen irakurgailuak erabiliz. Sartzeko hesia tornuak badira eta eskuekin/hankekin ukitu behar badira, hobe da jaitsita edukitzea.*

*- Sarbideek kontaktu fisikorik behar ez izateko ahalegina egingo da, eskumuturrekoak, txartelak eta QR kodeen irakurgailuak erabiliz. Sartzeko hesia tornuak badira eta eskuekin/hankekin ukitu behar badira, hobe da jaitsita edukitzea.*

*- Erabiltzaileen eskura jarriko dira eskuak desinfektatzeko sistemak, hidrogel desinfektatzailearen dosifikatzaile gisa, ahal dela dosifikatzaile automatikoarekin instalazioaren sarreran/irteeran eta eraikinaren barruko beste espazio batzuetan.*

*- Erabiltzaileen eskura jarriko dira eskuak desinfektatzeko sistemak, hidrogel desinfektatzailearen dosifikatzaile gisa, ahal dela dosifikatzaile automatikoarekin instalazioaren sarreran/irteeran eta eraikinaren barruko beste espazio batzuetan.*

*Horregatik guztiagatik, eta aurreko paragrafoetan azaldu berri diren **Eusko Jaurlaritzaren gomendioak** kontuan hartuta,*



*neurri hauek hartu dira, besteak beste:*

*- Edukiera 400 pertsonatara mugatzea. Nahiago izan dugu berme-emaileak izan eta muga edukiera-mugaren % 50 baino gutxiagoan ezarri.*

*- Udalaren Kirol Instalazioetako abonatuak edo udarako abonatuta dauden pertsonak soilik izango dute instalazioetara sartzeko aukera, aldeztatik hitzordua eskatuta.*

**Horrela, egoeraren kontrol handiagoa izango dugu, balizko kutsatze-kasuetan, eta behar izanez gero, horrek esku hartzeko ahalmen handiagoa eskaintzen digu.**

Muga horri dagokionez, Leioako Udalak osasun-irizpide batean oinarrituta justifikatu nahi du hartutako erabakia, eta horrekin honako hau erdiesten dela besterik ez du adierazi: *"egoeraren kontrol handiagoa izango dugu, balizko kutsatze-kasuetan"*, bai eta esku hartzeko ahalmen handiagoa ere.

4. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 84. artikulua honako hau ezartzen du:

*"1. Toki-korporazioek bide hauei esker esku hartu ahal izango dute herritarren jardueran:*

*a). Ordenantzen eta bandoen bidez.  
(...)*

*2. Esku-hartzea, beti ere, **tratu berdinean, bidezotasun-arrazoiaren eta helburuen arteko adostasunean eta norbanakoen askatasunarekiko errespetuan oinarritutako printzipioei lotuko zaie.**"*

Horretaz gainera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4.1 artikulua honako hau xedatzen du:

**"1. Administrazio publikoek, haien eskumenen barruan dihardutela, *eskubide indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten* duten neurriak ezartzen badituzte edo jarduera bat egiteko betekizunak eskatzen badituzte, *proporzionaltasun-printzipioa aplikatu beharko dute eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu beharko dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta lortu nahi diren helburuetarako egokia dela justifikatu, betiere diskriminazioa eragiten duten tratu-desberdintasunak baztertuz. Halaber, lortutako eragin eta emaitzak ebaluatu beharko dituzte aldizka.*"**

Hau da, Udalaren erabakia proporzionatua izateaz gain, tresnarik egokiena ere izan beharko da lortu nahi den helburua erdiesten dela bermatze aldera, ez baitago beste neurririk emaitza bera jada izateko eta hori lortzeko tresnarik egokiena izateko.





5. Hartu den neurria beharraren eta proportzionaltasunaren printzipioetara egokitzeari dagokionez, azpimarratu behar da Leioako Udalak honako hau baino ez duela adierazi justifikazio gisa: ***"Horrela, egoeraren kontrol handiagoa izango dugu, balizko kutsatze-kasuetan, eta behar izanez gero, horrek esku hartzeko ahalmen handiagoa eskaintzen digu."***

Era berean, ez du azaltzen (abonurik gabeko) erabiltzaileentzako sarbidea murrizteak zergatik laguntzen duen helburu goresgarri honetan: igerilekua erabiltzaileen osasunerako berme gehiagorekin erabiltzen dela bermatzea; izan ere, Udalak honakoa baino ez du adierazi: egoeraren kontrol handiagoa izango duela, balizko kutsatze-kasuetan, eta behar izanez gero, horrek esku hartzeko ahalmen handiagoa eskaintzen diola.

Kasu honetan, gainera, ikusten da Leioako Udalak, 2020an egin zuen bezala, eta pandemia hasi zenetik urtebete igaro ondorik, ez duela erabiltzaileen eskubideetarako hain murriztailea ez den beste aukerarik aurreikusi.

Leioako Udalak adierazi du beste udal batzuek ere antzeko erabakia hartu dutela; hala ere, Arartekoak egiaztatu du udal askok beste aukera batzuk aurreikusi dituztela.

Hala, udal askok instalazioetara sartzeko 2 txanda edo 3 txanda aurreikusi dituzte, **guztiak alde aurreko hitzorduarekin**, baina abonatuta dauden pertsonen eta abonamendurik gabeko erabiltzaileen artean bereizketarik egin gabe. Beste batzuek abonamendurik gabeko erabiltzaileentzat erreserbatutako edukiera-portzentajeak ezartzea aurreikusi dute, edo pertsona bakoitzeko gehieneko erreserba bat ezartzea, pertsona guztiek kirol instalazioez gozatzeko aukera izan dezaten.

Argi dago beste aukera batzuk ere badaudela, ezarritakoa bezain murriztaileak ez direnak; hainbestez, egokia litzateke Udalak erabiltzaileen eskubideetarako hain kaltegarriak ez diren irtenbide horiek aztertzea. Arartekoaren aburuz, alde aurreko hitzorduaren bitartez, instalazioetarako sarbidea behar bezala kontrolatzen da eta erabiltzaileak behar den moduan identifikatzen dira. Denbora eta espazioa banatzeko aukera ere ematen du, abonamendua duten erabiltzaileen eta abonamendurik ez duten pertsonen artean bereizketarik egin gabe, zerbitzuaren erregelamendua betez, edukiera-mugak bermatuz eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren osasun-araudia eta gomendioak betez.







Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## IRADOKIZUNA

Arestian egindako gogoetak kontuan hartuta, Arartekoak Leioako Udalari helarazten dizkio eta iradokitzen dio igerilekuetara sartzeko prozedura bat antola dezala, bai **abonatuentzat** bai **erabiltzaileentzat**, denen osasuna bermatuz instalazio horietan inguru segurua eskaintzeko eta, era berean, instalazio horien erabilera arautzen duen erregelamendua bete ahal izateko.

